

# EOS, BOSEN DENBORALDIKO ORKESTRA GONBIDATUA

---

*85. eta 90. urteen arteko esperientzia bat berreskuratuz, BOSeK eta Euskadiko Sinfonikoak euren denboraldiak partekatuko dituzte, elkar gonbidatuz. Truke horri hasiera emateko, EOS gure Denboraldian izango da, Pietari Inkinen zuzendari finlandiarraren zuzendaritzapean eta Miguel Ituarte piano-jotzailea bakarlari lanetan arituko delarik*

**Bilbon, 2010eko urtarrilaren 13an**

Egunak: urtarrilaren 14a eta 15a

Ordua: 20:00etan

Lekua: Euskalduna Jauregia

Hilaren 14an (osteguna) eta 15ean (ostirala), BOSen Denboraldiko zortzigarren kontzertua izango da Euskalduna Jauregian. **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa** orkestra gonbidatu gisa arituko da. BOSeK aurtengo maiatzean itzuliko dio bisita EOSi, bere denboraldian arituko baita. Eguneroko lanean harreman handia duten bi orkestraren arteko lankidetzaz berezia. EOS Pietari Inkinen zuzendari finlandiarrak zuzenduko du; izan ere, une honetan bera da Zeelanda Berriko Orkestra Sinfonikoaren musika-zuzendaria. Era berean, Miguel Ituarte euskal piano-jotzailea bakarlari gisa arituko da.

Egitaraua:

**Jean Sibelius:** Sagan, poema sinfonikoa, op. 9

**Sergei Prokofiev:** 5. kontzertua Sol maiorrean piano eta orkestrarako, op. 55

**Miguel Ituarte,** pianoa

**Jean Sibelius:** Tuonelako beltzarga, op. 22, 2. zk.

**Claude Debussy:** La mer

Egitarau honetan, EOSek lehenengo aldiz egingo die aurre interpretatzen dituen lau lanetatik hiruri. Hain zuzen ere, Sibeliusen bi konposizioei eta Prokofievenari.

Kontzertu honetan, musika sinfonikoa oso desberdinak diren hiru modutan ikusteko aukera izango dugu; dena dela, hirurek ere une historiko ia berbera konpartitu zuten. Sibelius (bere lanak XIX. mendearen azken hamarkadan daude idatzita) "kontserbaduristatzat" eta, are gehiago, "antimodernistatzat" jo izan zuten XX. mendearen zati handi batean. Debussyri (1903an idatzi zuen *Le Mer*) guztiz kontrakoa gertatu zitzaion; izan ere, eredu klasiko-erromantikoa hausteko arduradun nagusia izan zen, eta inpresionismo musikala definitu zuen. Prokofievi dagokionez, bere azken lanetako batez gozatuko dugu; kritikarien arabera, konbentzionalismo orotik aske dago eta SESBera itzuli baino bi urte lehenago idatzi zuen. Itzulera horrek konbentzionalismotik urrunen egon zen etaparen amaiera ekarri zuen, dekadentea zelako eta iraultzaren aurkakoa zelako sistema sobietarrak etapa europarrean idatzitako musikari egindako kritikak zirela-eta.

## PROGRAMA 8. EGITARAUA

Orkestra gonbidatua / Orquesta invitada  
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
**Pietari Inkinen**, zuzendaria / director

### I

Jean Sibelius  
(1865-1957)

*Sagan poema sinfonikoa, op. 9*  
En Saga, poema sinfónico, op. 9

Sergei Prokofiev  
(1891-1953)

*5. kontzertua Sol maiorrean piano eta orkestrarako, op. 55*  
Concierto nº 5 en Sol mayor para piano y orquesta, op. 55

I. Allegro con brio  
II. Moderato ben accentuato  
III. Moderato ben accentuato  
IV. Larghetto  
V. Finale: Vivo

**Miguel Ituarte**, pianoa / piano

### II

Jean Sibelius

*Tuonekako beltxarga, op. 22, 2. zk.*  
El cisne de Tuonela, op. 22 nº 2

Claude Debussy  
(1862-1918)

La mer

I. Egunsentitik eguerdira arte itsasoan / Desde el alba al mediodía en el mar  
II. Uhinen jolasa / Juego de olas  
III. Haizearen eta itsasoaren arteko elkarrizketa / Diálogo del viento y el mar

## EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

### MODERNOTASUNERANTZ

Urteen joan-etorriak emandako perspektibaz ikusita, bere ustezko kontserbadurismoaren ondorioz (antimodernismoa ez esatearren) XX. mendeko zati handi batean Jean Sibeliusen musikak jasandako erasoak lekuz kanpo daude, nonbait. Bere erbeste britainiar-iparramerikarrean, irratietan, kontzertu-aretoetan eta literaturan finlandiarraren lanak noiznahi agertzen zirela ikustean, Theodor Adorno filosofo alemaniarrek finlandiarraren arrakasta “kontzientzia musikalaren asaldura-sintoma” zela idatzi zuen bere *Glosa sobre Sibelius* lanean (1938). Argi eta garbi dago aurkakoak asko eta nabariak izan zirela (Neville Cardus, Benjamin Britten, Virgil Thomson, Nadia Boulanger), baina Adorno bezalakorik ez zegoela. Seguruenik, Vienako Bigarren Eskolako pentsamendu musikalean zegoen errotuegi. Adornoren ustez, Sibelius beste garai bateko musikagilea zen (“atzean geratu da, bere garaiko erdi-mailari dagokionez”), baina, horrez gain, erdeinu handiz gutxiesten zituen haren lanak: *Laugarren eta bosgarren sinfonia* (“ziztrina bezain beoziarra”), *Vals Triste*a (“kalterik egiten ez duen areto-lana”), *Ozeanidoak* edo *Tuonelako beltzarga* (“pasarte betegarriak”, “fisionomia lausoko musika programatiko laburrak”). Edonola ere, orain agerikoa dirudi Sibelius etorkizunari begira ari zela lanean, lengoaia iraultzailerik erabiltzen ez bazuen ere. Honako elementu hauetan hautematen zen, hain zuzen ere: orkestrazioa, hemeretzigarren mendeko tradizio sinfonikoaren eraberritzea, diatonismoa (*Hirugarren sinfonia*), baretasun espirituala eta, nola ez, Europako iparraldeko herrialdeetako natura mortu, lainotsu, hostotsu eta itzaltsuaz hitz egitean bere musikak erabilitako kolorazio iluna. Natura ez ezik, literatura asko ere badago Sibeliusen musikan, baina, batez ere, Finlandiako *Kalevala* epopeia nazionaletik sortutakoa. Zenbait olerki sinfoniko bertan edo bertako mitologian daude inspiratuta: *Kullervo*, *Tiera*, *Luonnotar*, *Pohjolaren alaba* eta *Tapiola*. Era berean, *Lemminkäinen*, op. 22 (1896) osatzen duten laurak ere bai: *Lemminkäinen eta uharteko dontzeilak*, *Lemminkäinen Tuonelan*, *Tuonelako beltzarga* eta *Lemminkäinenen itzulera*. Hirugarrenean, *Tuonelako beltzarga* lanean (Adornok bere *Glosa* lanean gutxietsitako orrialde horietako bat), Sibeliussek ez du historia azaltzen, eszena birsortzen baitu: Tuonelako uren gainean beltzargak egindako kantu lasaia (adar ingelesaren bidez adierazten da), hildakoen erreinua, Europako iparraldeko Hades.

*Sagan* lanean ere (1892, 1902an berrikusia), badirudi argi dagoela giro legendarioa dakarkigula gogora, eta, beharbada, Islandiako *Edda* lanean edo *Kalevala* epopeian dago inspiratuta. Olerkiaren izenburua suedieraz dago, eta bere itzulpena *Istoria* edo *Ipuina* izan daiteke. Helduaroan, honako haxe adierazi zuen maisuak: “*Sagan* lana nire lan sakonenetakoa da alderdi psikologikoari begira. Nire gaztaro osoa bertan dagoela esan nezake ia-ia. Nire aldartearen adierazgarri da. Idatzi bitartean, zenbait esperientzia mingarri gogoratu nituen. *Sagan* lanean, inoizkorik gehien hitz egin dut neure bizitzari buruz”. Nahiz eta zati bat Vienan idatzi, oso-oso lan finlandiarra ere bada (“inoiz ez naiz izan Vienan, Italian eta Parisen bizi nintzenez baino finlandiarragoa”). Robert Kajanussek eskatuta konposatutako partituraren lehen bertsioak ez zuen harrera handirik eduki: programarik ez zeukala, musikaltasuna kapritxozkoa zela eta luzeegia zela esan zuten. Hartara, orrialdea berrikusi zuenean, Sibeliussek pasarte bortitz, kontrajarri eta ankerrenak kendu zituen, batez ere, Aino emaztearen haserretako. Zenbait urteren ondoren, emazteak tamalez esan zuen *Sagan* laneko musika “zibilizatuegia” izan zela azkenean. Egia esan, lehen konpasetatik, olerkian nagusi den tonu triste bezain ilunaren berri ematen du hariak, eta, bertan, agerpen disonantea, espektrala, ia-ia fantasmagorikoa izango balitz bezala sortzen da egurraren lehen tema. Ondoren, bizitasuna areagotu egiten da, eta Allegrorra eramaten gaitu. Bertako tema nagusietan (urduritasunaren eta seriotasunaren artean dabilta), gainera, haria eta metala dira nagusi: orain, musika klimax izugarriantz mugitzen da, eta benetako abaildura-oihua da. Gero, giroa lasaitu

egiten da egurren lirismoaren bitartez, motiboak berberak badira ere. Dena dela, baretasuna behin betikoa dela dirudienean, oboaren kantuak erupzioan dagoen sumendi hau iratzartzen du, eta bere su guztia hedatzen du Allegro molto asaldatu bezain bizi-bizian. Horren ondorioz, musika muga-mugaraino iristen da berriro, epilogo lasai bezain baketsuan amaitzeko.

Agerikoa denez, *Sagan* eta *Tuonelako beltzarga* oso lan goiztiarrak dira, eta ez dute Sibeliusen modernotasuna argi eta garbi islatzen, baina modernotasuneranzko bidea bai, ordea. Bestetik, modernotasun hori ez da garai hartan Claude Debussy garatzen hasi zena bezalako. Hain desberdinak zirenez, *Glosa* lanean Adornok frantsesaren musika hartu zuen giro naturalak benetan irudikatzen zituen musika-eredutzat, Sibeliusen musikaren “orquestra-kolore aleatorioaren” aldean. Debussyk kolorearen unibertsoan arnasten zuen, argiaren espazioan, klimen, testuren, atmosferen eta sentimendu iheskorren munduan. Bere inpresionismoa pasio erromantikoaren antitesia omen zen. Tinbreak fin-finak, sentsualak eta iradokitzaileak dira, eta harmoniek oihartzun wagneriar urrunen bidez miretsitako mundu ulertzinez hitz egiten dute. Horrela, bada, Debussy XX. mendeko eragin handiko musikagileetako bat izan da, nahiz eta ikus-entzuleek bere lan gehienak ezagutzen ez dituzten. Hala ere, ez da halakorik gertatzen *La Mer (Itsasoa)* triptiko sinfonikoarekin. Hain zuzen ere, naturako elementu mugagabe bezain zabal horrekiko maitasun sakonaren ondorioz suspertutako hiru zirriborro sinfoniko dira. Bere bizitza sentimental aztoratuaren ondorioz, musikagilearen irudia ez zenez ona, estreinaldiaren osteko (1905eko urria) kritikak aurkakoak izan ziren. Seguruena, ez zen arrazoi bakarra izan. *La Mer* ez zen Debussyrengandik espero zuten orrialde erradikala: lengoia lurtarrerantz bira egin zuela aurpegiratu zioten, bai eta harmonia bera ere modu generiko edo arruntegian tratatu zuela ere. Nolanahi ere, lanaren kolore-zentzua lilugarria da benetan, eta, hiru mugimenduetan, sonoritate ezin ederragoak dira nagusi, *Egunsentitik eguerdira itsasoan* mugimenduan iradokitako eguzki-irteeran, *Olatuen jokia* mugimenduan irudikatutako olatu geldiezinetan edo asaldatua bezain espiritual den *Haizearen eta itsasoaren arteko elkarriketa* mugimenduan.

Argi eta garbi dago Sergéi Prokófievren inguruko polemikak beste era batekoak izan zirela. Hasiera-hasieratik, nazionalismo musikal errusiarraren interesen aurkako musikagilea izan zela adierazi zuten. 1917ko Iraultzaren ondoren, Europa joan zen, eta, bertan, pianorako zein orkestrarako azken hiru kontzertuak idatzi zituen (horrez gain, zenbait sinfonia, *Klasikoa*, esaterako; *Hiru laranja maitasuna* eta *Suzko aingerua* operak; eta Parisen Sergei Diaguilev enpresariarentzat sortutako zenbait ballet ere bai). Sobietar Batasunera itzuli zenean (1934), progresismo komunistak sustatutako errealismo sozialistak Europako etapan sortu zituen piezen ageriko “formalismoa” gaitzesten zuela konturatu zen. Izan ere, iraultzaren aurkako arte dekadente eta kutsatuaren adierazgarri zen. Oraindik ere, ez dago argi zer neurritaraino eduki zuen eragina musikagilearengan, azkenean bere musika are kontserbadoreagoa zen-eta. Dena dela, agerikoa dirudi etapa sobietarrean melodiaren erabilera nabarmendu zela, Europan garatutako lan-ibilbidekoa leunagoa zen-eta. Alde horretatik, baliteke 1932an Berlinen autoreak pianoa jotzen zuela Wilhelm Furtwängler ospetsuaren zuzendaritzapean estreinatutako *Pianorako bosgarren kontzertua* musika inolako konbentzionalismorik gabe agertzen deneko azken lanetakoa izatea. Bost mugimenduak, hain zuzen ere, ez dira batere tradizionalak pianorako eta orkestrarako lanean: lehenengoan (Allegro kementsua), nolabaiteko nerabezaro intelektuala hautematen da bere primitibismo garratzean; eta bigarrenean (Moderato ben accentuato), pianoaren hasierako *glissandiek* umore ausart bezain limurtzailea iragartzen dute. Hirugarrena (Moderato ben accentuato), ordea, iseka amorratuko bulkada da, nolabait esateko. Bertan, ezertxok ere ez du iragartzen zeinen baltsamikoa den laugarrenaren lasaitasuna (Larghetto). Izan ere, bostetan luzeena da, bai eta zabaltasun liriko handienekoa ere, erdiko sekzioa ahaltsua eta ilun samarra den arren. Horrela, den-dena dago prest azken mugimenduko crescendo direkzional bortitz bezain gogorrerako (Vivoa). Azken konpasetan, gainera, badirudi bere burua ukatu nahian dabilen tradizio osoak egiten duela eztanda.

## **Miguel Ituarte, pianoa**

Getxon jaioa, Bilbon, Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Amsterdamgo Sweelinck Conservatorium delakoan egin zituen ikasketak. Bakarleri gisa, hainbat orkestrarekin aritu izan da, besteak beste, Amsterdamgo Concertgebouwko Ganbera Orkestra, Londresko Royal Philharmonic, Luxenburgoko RTVko Sinfonikoa, Hanburgoko Schleswig-Holstein Filarmonikoa, Lisboako Gulbenkian Orkestra eta Oportoko Klasikoa, eta Espainia eta Hego Amerikako orkestra ugariarekin. Espainia, Portugal, Frantzia, Holanda, Alemania, Suitza, Italia eta Polonian eman ditu errezitaldiak. Ganbera musikaren arloan, Takaks eta Ortys laukoteekin aritu izan da. Triálogos taldeko kide gisa, Manuel Guillén eta Ángel Luis Quintanarekin batera, Beethovenen pianodun trioan integrala grabatu zuen Espainiako Telebistaren Kanal Digitalerako. Verso disko-etxeko “Música de cámara actual” diskoan parte hartu du, Iñaki Alberdi akordeoi-jotzailearekin batera, Jesús Torres eta Gabriel Erkorekaren lanak joz. Gaur egun, Cecilia Lavilla Berganza sopranoarekin eta Iosu Okiñena piano-jotzailearekin egiten du lan. RTVE eta Holandako AVROrako egin ditu grabazioak. Jesús Rueda, Zuriñe F. Gerenabarrena, José María Sánchez Verdú eta José Zárate musikagileek pianorako lanak eskaini dizkiote.

Piano irakaslea da Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroa), 2001ean sortu zenetik. Era berean, Bach eta Beethoveni buruzko mintegiak eskaini ditu Musikenen eta Alcalá de Henaresko Unibertsitatean.

## **Pietari Inkinen, zuzendaria**

Pietari Inkinen Zeelanda Berriko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria da 2008az geroztik, eta maila gorenean ari da lanean nazioartean. Hala Zeelanda Berrian eskainitako kontzertuak nola Orkestrarekin Naxos disko-etxerako egindako grabazioak gogo biziz hartu dituzte bai entzuleek zein kritikariek. 2010eko azaroan, beti bere orkestrarekin, bira bati ekingo dio; horri esker, Europako hiriburu nagusietan arituko da zuzendaritza lanetan, hala nola, Viena, Lucerna, Geneva, Frankfurt eta Hanburgon, Hilary Hans bakarleri lanetan arituko delarik. 2009an Japoniako Filarmonikoaren zuzendari titularraren kargua hartu zuen. Zuzendari gonbidatu gisa, zenbait orkestrarekin kolaboratu du, besteak beste, Dresden Staatskapelle, Leipzig Gewandhaus, Bayerische Rundfunk, WDR Cologne, Maggio Musicale, La Scala, Vienna Radio Symphony Orchestra, Rotterdam Philharmonic, BBC Symphony eta CBSOrekin. Datozen denboraldietan, Deutsche Symphony Orchestra Berlin, Israelgo Filarmonikoa eta Radio France Orchestre Philharmoniquerekin (Parisen) debutatuko du. Inkinenek kolaborazio oparoak egiten ditu maila handiko bakarlariekin, esate baterako, Vadim Repin, Hilary Hahn, Pinchas Zukerman, Nikolaj Znaider, Jean Yves Thibaudet, Alexander Toradze eta Elisabeth Leonskayarekin. Operaren arloan, Finlandiako Opera Nazionalaren hiru produkzio zuzendu ditu, *Eugene Onegin* barne. Bruselako La Monnaien debutatu du *Udaberriaren Kotsakrazioa* zuzenduz, Pina Bauschen Dantza Konpainiarekin. Hau da Pietari Inkinenek Euskadiko Orkestra zuzentzen duen lehen aldia.

## **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa/Orquesta Sinfónica de Euskadi**

27 urteko ibilbidea egin duela, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tinko dirau musika sinfonikoa eta bereziki euskal musika zabaltzearen bere eginkizuna betetzen. Ongi finkatutako eta egituratutako jarduerak lau kontzertu ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea), ganbera-musika zikloa bat eta gaztetxoentzako kontzertu-ziklo bat burutzea ahalbidetzen du. Halaber, arreta bereziki euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoan jartzen duen diskografia zabala garatu du eta orkestra gonbidatu gisa udako jaialdietan, operatan eta abar aritzen da.



Nazioarteko birak garrantzi berezia dute Orkestra honentzat, jada 13 burutu dituelarik, besteak beste, Argentina, Brasil, Txile, Alemania, Austria, Suitza, Frantzia, Britainia Handia eta Italian barrena. Guzti honen ondorioz, Euskadiko Orkestra erreferentziazko orkestra sinfonikoa da estatu mailan.

Orkestra 1982ko apirilan sortu zen, Euska Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatu eta garatua. Andrés Orozco-Estrada da Orkestraren zuzendari titularra eta Andrey Boreyko, berriz, zuzendari printzipal gonbidatua. Zuzendari gonbidatu gisa, Yehudi Menuhin, Paul McCreech, Yakov Kreizberg, Oleg Caetani, Jerzy Semkov, Lawrence Foster, Christopher Hogwood edo Jesús López Cobos-en mailako maisuak eta Maria Joao Pires, Frank Peter Zimmermann, Mischa Maisky, Antonio Meneses, Christian Zacharias, Leonidas Kavakos, Radu Lupu, Joaquín Achúcarro, Arcadi Volodos, Hélène Grimaud, Heinrich Schiff, Ainhoa Arteta, María Bayo, Carlos Alvarez, edo Carlos Mena bezalako interpreteak aritu dira orkestrarekin.